



**Espediente** zk./Nº Expediente: 2019IPOL0047

**Gaia/Asunto:** Tokiko Gobernu Batzordearen eraketa eta alkatearen eskumenen eskuordetzea kide anitzeko organo honengan / Constitución de la Junta de Gobierno Local y delegación de competencias de la Alcaldesa en dicho órgano colegiado

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRENTERIA

DEKRETUA

Legeak eman dizkidan eskumenez baliatuta, ondoko dekretua eman dut:

Tokiko Gobernu Batzordearen eraketa eta alkatearen eskumenen eskuordetzea kide anitzeko organo honengan.

AURREKARIAK

2019-2023 Udal Korporazioa eraturik orain beharrezkoa da udal antolaketa berria abian jartzeko, besteak beste, Tokiko Gobernu Batzarra eratzea indarreko legediak erakunde honi auto-antolatzeke ematen dion ahalmena baliatuta.

Udalerri honetan Tokiko Gobernu Batzarra eratu behar da 5.000 biztanle baino gehiago dituelako.

ZUZENBIDE OINARRIAK

- apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena (4.1a, 20.1b, 21.3, 23. artikulua)
- apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (25.1, 25.2, 25.3, 27.1, 30.2 artikulua)
- urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena (9. artikulua)
- Errenteriako Udalaren eta Organo Kolegiatuen Araudi Organikoa (IV. titulua)

Honen bidez, Alkate honek, udal idazkariak

DECRETO

En uso de las atribuciones que me confiere la Ley vengo a dictar el siguiente decreto:

Constitución de la Junta de Gobierno Local y delegación de competencias de la Alcaldesa en dicho órgano colegiado.

ANTECEDENTES

Constituida la Corporación Municipal 2019-2023 resulta necesario proceder al establecimiento de la nueva organización municipal y, en particular, a la constitución de la Junta de Gobierno Local, en ejercicio de la potestad de autoorganización que se reconoce a esta Entidad por la legislación vigente.

Considerando que en este Municipio es obligatoria la constitución de la Junta de Gobierno Local, por tener una población de derecho superior a 5.000 habitantes.

LEGISLACION APLICABLE

- artículos 4.1a), 20.1b), 21.3, 23 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local
- artículos 25.1, 25.2, 25.3, 27.1, 30.2, de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi
- artículo 9 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público
- título IV del Reglamento Orgánico de los Órganos Colegiados del Ayuntamiento de Errenteria

Por la presente, esta Alcaldesa, con la conformidad



espedienteam jasota dagoen ebazpen proposamenari emandako oniritziarekin, legeak aitortzen dizkion eskumenak baliatuta,

dada por la Secretaria Gnal a la propuesta de resolución que consta en el expediente, en uso de las atribuciones que legalmente tiene conferidas

### EBATZI DUT

### RESUELVO

**Lehenengo.-** Tokiko Gobernu Batzarra eratzea, izaera erabakigarria izango duen organo kolegiatua. Berori Alkateak eta sei zinegotzik osatuko dute.

**Primero.-** Constituir la Junta de Gobierno Local, órgano colegiado municipal de carácter resolutorio, que quedará integrada por los miembros siguientes: la Alcaldesa y seis vocales.

Tokiko Gobernu Batzarreko zinegotziak ondorengo hauexek izango dira:

Nombrar miembros de la Junta de Gobierno Local a las y los siguientes concejales:

- Alazne Korta Zulaika
- Itziar Ostolaza Galdos
- Bernar Lemos Taberna
- Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta
- Ion Collar Rioseco
- Maite Gartzia Ontiveros

- Alazne Korta Zulaika
- Itziar Ostolaza Galdos
- Bernar Lemos Taberna
- Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta
- Ion Collar Rioseco
- Maite Gartzia Ontiveros

**Bigarren.-** Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkateak eskuordetuta indarrean dagoen legeriaren baitan, ondoko eskumenak izango ditu bere gain:

**Segundo.-** La Junta de Gobierno Local, ostentará, por delegación de esta Alcaldesa de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente, las competencias siguientes:

#### 1. HIRIGINTZA ARLOAN

#### 1.-EN MATERIA DE URBANISMO

• Onartuko ditu Udalbatzari espreski esleitu gabeko Plan Orokorraren plangintza-garapenaren baliabideak, baita hirigintza-kudeaketako baliabideak eta urbanizazio-proiektuak ere.

• Las aprobaciones de los Instrumentos de Planeamiento de Desarrollo del Planeamiento General no expresamente atribuidas al Pleno, así como la de los instrumentos de gestión urbanística y de los proyectos de urbanización.

• Oin berriko eraikuntzako lizentziak eta sailkaturiko jarduerarako lizentziak ematea.

• El otorgamiento de licencias de edificación de nueva construcción, así como las licencias de actividades clasificadas.

• Onartzea udal kale, plaza, eraikin eta gainerako ondasun higiezin izendapena.

• Aprobar la denominación de las calles, plazas, edificios y demás bienes inmuebles municipales.

#### 2. LANGILERIA ARLOAN

#### 2.- EN MATERIA DE PERSONAL



- Udal organigrama onartzea.

### 3. ONDASUNEN ARLOAN

- Jabari publikoko ondasunen inguruko emakidak esleitu eta ondare higiezinak eta higigarriak erdietsi, hala nola ondare-legeriapeko eskubideak eta ondareak, oro har, saldu 120.000 € baino gehiagoko balioa dutenean.

### 4. KONTRATAZIO ARLOAN.

- Ondorengo kontratuen esleipena baldin eta lehenengo urtealdirako 120.000 € baino gehiagokoak badira: obra-kontratuak, horniketakoak, zerbitzu kontratuak, zerbitzu emakidakoak, administrazio berezikoak eta kontratu pribatuak.

### 5. BESTELAKOAK

- Onartuko ditu, halaber, dirua irabaztea xede ez duten elkarten, fundazioen eta antzekoen inskribapena Elkarten Udal Erregistroan.
- Onartzea alkateraren eskumeneko programa, plan, Udalaren eskuliburuak, hala nola Udal sail eta azpisailen eskumenen eskuliburua, kontratazio eskuliburua, biodibertsitate planak, legegintzaldi plana eta antzekoak, araudi plana, eta abar.
- Alkatearen eskumeneko logo, marka eta Udalaren gainerako karaktereak onartzea.
- Alkatearen eskumeneko lankidetzak hitzarmenak onartzea bere kopuru ekonomikoa 120.000 €-tik gorakoa denean edota sail/ azpisail bati baino gehiagori eragiten dietenean. Azken irizpide hau interpretatzeko ez da kontuan hartuko zeharkako azpisailen ezinbesteko parte-hartzea espedientearekin lotutako alderdi juridiko zein ekonomikoen azterketan, baizik eta sail/azpisail baten baino gehiagoren eskumenei eragitea. Eta horrela denean dagokien zinegotzi ordezkarien

- Aprobar el organigrama municipal.

### 3.- EN MATERIA DE BIENES

- La adjudicación de las concesiones sobre los bienes demaniales y la adquisición de bienes inmuebles, muebles y derechos sujetos a la legislación patrimonial y enajenación del patrimonio en general cuando su valor supere la cantidad de 120.000 euros.

### 4.- EN MATERIA DE CONTRATACIÓN

- La adjudicación de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de concesión de servicios, administrativos especiales, y los contratos privados que superen la cantidad de 120.000 euros para la primera anualidad.

### 5.- OTROS

- Aprobar la inscripción de asociaciones, fundaciones y similares en el Registro Municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro.
- Aprobar los programas, planes, manuales del Ayuntamiento de competencia de la Alcaldesa, tales como: Manual de competencias de las áreas y subáreas del Ayuntamiento, manual de contratación, planes de biodiversidad, plan de legislatura y similares, plan normativo, etc.
- Aprobar logos, marcas y demás caracteres del Ayuntamiento, que sean de competencia de la Alcaldesa.
- Aprobar los convenios de colaboración/cooperación de competencia de la Alcaldesa cuya cuantía económica sea superior a 120.000 euros o afecten a más de un área o subárea. Para la interpretación de este último criterio no se tendrá en cuenta que en su tramitación necesariamente tengan que intervenir subáreas transversales en las que se analicen aspectos jurídico económicos inherentes al expediente, sino que efectivamente afecte a las competencias de más



proposamen bateratuaren baitan onartuko dira eta proposamenean ezinbestean finkatuko da expedientearen sail/azpisail arduraduna eta ondorioz lankidetzaren arduraduna.

- Oarsoaldea S.A. baliabide propioari egindako enkarguak onartzea, baldin eta lankidetzaren hitzarmenentzat aurrez aipatutako irizpideak betetzen badira.
- Aurrekoaz gainera Udalbatzak delegatuzkoak diren beste edozein eskumen.

**Hirugarren.-** Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak hil bakoitzeko lehenengo eta hirugarren asteko astearte ez jaiegunetan egitea, goizeko 09:15etan.

Adierazitako eguna jaieguna tokatuko balitz, TGBren bilkura hurrengo lanegunean egingo litzateke.

Abuztuko ohiko TGBko bilkurak bertan behera uztea, betiere erabaki horrek gaien kudeaketan kalterik ez badu eragiten. Era berean, ohiko TGBko bilkurak hil berean aurreratu edo atzeratzea, baldin eta alde zuzenetik finkatutako eguna opor garaikoa edo balizko zubi batekoa bada.

**Laugarren.-** Erabaki honen berri emango zaie, jakin dezaten eta ondorioak sortzeko, interesatuei eta udaleko sail eta azpisail desberdinei.

**Bosgarren.-** Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean. Eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

de un área o subárea, en cuyo caso se aprobarán a propuesta conjunta de las y los concejales delegados correspondientes fijándose necesariamente en la propuesta el área o subárea responsable del expediente y consecuentemente del convenio de colaboración/cooperación.

- Aprobación de los encargos al medio propio Oarsoaldea S.A. siempre que se cumplan los criterios anteriormente indicados para los convenios de colaboración/cooperación.
- Todo lo anterior sin perjuicio de cualquiera otra competencia que pueda serle delegada por el Pleno Municipal.

**Tercero.-** El establecimiento de las sesiones ordinarias de la Junta de Gobierno Local el primero y el tercer martes, no festivo, de cada mes, a las 09:15 horas.

En caso de que dicho día fuese festivo, la sesión de JGL se celebrará el día hábil inmediatamente posterior.

Suspender la celebración de las sesiones ordinarias de JGL del mes de agosto, como consecuencia del período vacacional, cuando ello no menoscabe la gestión de los asuntos municipales, así como posponer o avanzar la celebración de las sesiones ordinarias de la JGL, dentro del mismo mes de su celebración, cuando el día fijado se encuentre incluido en un período vacacional o eventual puente.

**Cuarto.-** Notificar la presente resolución a las y los interesados y a las diferentes áreas y subáreas municipales para su conocimiento y efectos.

**Quinto.-** Publicar la presente resolución, tanto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa como en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial. A su vez dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en lo que se refiere a la publicidad activa de



los aspectos regulados por esta resolución.

**Seigarren.** Erabaki honen berri ematea, halaber, Udaltzari Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren 38. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko.


**Sexto.-** Dar cuenta al Pleno de esta resolución para dar cumplimiento a lo previsto por el artículo 38 de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Errenteria, 2019ko uztailaren 01a

Errenteria, 01 de julio de 2019

**ALKATEA / LA ALCALDESA**

Aizpea Otaegi Mitxelena



Adierazten den datan Osoko Bilkurak Ikusi eta / Visto en Sesión Plenaria de esta fecha .....

04 JUL 2019



Idazkari: Nagusia  
La Secretario Gral.

Adierazten den datan Tokiko Gobernu Batzarak Ikusia / Visto en Junta de Gobierno Local de esta fecha .....

18 JUL 2019



Idazkari: Nagusia  
La Secretario Gral.